ABANTO. Jaurlaritzak meategi ganeko lurrak hondoratzeko aukerea ezin dala baztertu dino



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Batasuneko Txema Pico, Josean Lozano eta Juan Jose Zarraga, atzoko prentsaurrekoan.

Gallartako saihesbidea arriskuan ipini dabe Bodovalle meategi ganeko lurrek

Arriskuaren araberako erabilerea egitea eskatu jake administrazinoei

Iñigo Olabarri | ABANTO

Bodovalleko meategiaren ganean dagozan lurren eremu baten erabilerea mugatzeko eta, beste eremu baten, lurrak hondoratzeko dagoen arriskuak izten dituen erabilerak baino ez egiteko erabagia jakinarazo deutse Eusko Jaurlaritzak lur horreetan eskumena daukien administrazinoei.

Abantoko lurren azpian egoan Bodovalle meategian urteetan egin dan ustiapenak herri horren eta ingurukoen urigintza planak aldatu behar izatea ekarriko dau etorkizunean, azterketa baten ostean Eusko Jaurlaritzako Industria eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritzak esandakoaren arabera.

Batasuneko batzarkide Txema Picok eta alderdi bereko zinegotzi Juan Jose Zarragak eta Josean Lozanok emon eben Eusko Jaurlaritzaren erabagiaren barri atzo Abantoko udaletxean. Erabagi horrek eragin zuzena eukiko dau, Batasunekoek adierazo dabenez, Gallartako saihesbidearen proiektuan eta Abantoko Campillo poligonoaren proiektuan be.

Gallartako saihesbidea Arboledan eregiko daben golf zelaiagaz lotuta dagoen proiektua da. Izan be, harako bide egokiagoak sortzea zan proiektu horren helburua. Campilloko poligonora, ostera, gas eta ur hodi gehiago eroan gura ditue. Behar horreek geldi dagoz momentu honetan Batasunatik esandakoaren arabera.

Orain egoera hori zelan konpondu aztertu behar dala dinoe Batasunekoek. Izan be, herriarentzat garrantzitsuak diran azpiegiturak dagoz lur horreetan eregita. Ur biltegia, esate baterako, hondoratzeko arriskurik handiena daukan inguru batean dagoela jakinarazo eben zinegotziek eta batzarkideak.

Hondoratze bi azkenengo urteetan

Arriskua balizkoa baino ez dala erakusten daben adibide bi badagozala dinoe Batasunekoek. Azkenengo urteetan lur hondoratze bi gertatu dira meategi horren ganeko lurretan. Ez da hildakorik egon, baina horreetako batean, etxe bat lurperatu zala gogoratu arazo eben Batasuneko batzarkide eta zinegotziek. Horrek herrian sortu eban egonezina be handia izan zala azpimarratu eben.

Egoera horren aurren zeozer egin dauen bakarra Abra Industrial SA izan dala jakinarazo dabe Batasuneko zinegotziek. «Aldundiak eta Udalak ez dabe ezer egin. Abrakoek, ostera, poligonoa handitu gura eben lekuan ezin dabenez eregi, beste leku baten eskatu ditue lurrak. Udal gobernuari holangorik ez onartzeko eskatuko deutsogu».

Batasunak Batzar Nagusietara eroango dau, ganera, Abanton dagoen arazoa. «Bizkaiko Foru Aldundiko Urigintza arduradunak Batzar Nagusien aurrean bere arloak egingo dauenaren barri emon daian gura dogu». Obra Publikoen arloko arduradunari be deituko deutsie saihesbidearen ganean berba egiteko.

DATUA

Ia 600.000 metro koadro erabili ezinean

Erabagiak lur eremu zabal baten eukiko dau eragina. Agruminsak ustiatzen eban meategiaren ganean. Urbanizau ezin diran 110.000 metro koadro dira mugarik handienak eukiko dituenak. Eremu horren ganean ezin izango da ezelango ekimenik egin. Bigarren eremu bat be badago. Kasu horretan 450.000 metro koadroko hedadurea daukan inguruan, lur horreen erabilerea oso mugatuta egongo da.

ARDURAK

«Agruminsari eta, ondorioz, Abra Industriali eskatu behar jakez»

Josean Lozano Batasuneko zinegotziak salatu eban orain arte ez jakola Agruminsa SAri —Bodavalle ustiatzen eban enpreseari— ezelango ardurarik eskatu. «Meategien ustiapena amaitu zanean, Agruminsaren lurrak Abra Industrial SAk kudeatzen ditu. Guk enpresa bera dala pentsetan dogu. Agruminsari leporatzen jakoz ustiapen okerrarengaitik sortu diran arazoak —hondoratzeak, egoera horrek dakarzen urigintza mugak..._ eta meategiaren ganeko Agruminsaren lurrak Abra Industrialek kudeatzen ditu». Udalean ardura horreei erantzuteko eskatuko dabela jakinarazo dabe Batasunekoek.

BILBO

Hontzaren aldeko manifestazinoa antolatu dabe datorren zapaturako

Erredakzinoa | BILBO

Bilbo Zaharreko Taldeen Koordinadorakoek jakinarazo ebenez, manifestazinoa antolatu dabe datorren zapaturako, Hontza zentroari babesa erakusteko. *Gizarte solidarioago baten alde. Hontzari bai, hemen eta edonon* izango da egun horretan arrastiko 17:00etan kalera urtetako aukeratu daben leloa.

Drogazaleei eta etxerik ez daukienei babesa emoteko jaio zan zentroaren inguruan sortu dan eztabaideak bultzatu ditu alkarte horretako kideak manifestazinora deitzera.

Alkarteak eandakoaren arabera, zentro horren moduko baliabideak erabilten dituen pertsonen oinarrizko giza eskubideak babestu egin behar dira. Hontza eta martxan ipinten dan antzeko edozein ekimenen alde agertu dira.

Inauterietako lehenengo saria Kaskagorriri emotea kritikau dau PPk

Erredakzinoa | BILBO

Inauterietako desfilean lehenengo saria atara eban Kaskagorri konpartseak. Antonio Basagoitik, PPko udal taldearen bozeroaleak, konpartsa horrek Udaletik 300.000 pezeta (1.800 euro inguru) jaso dituela esan eban eta diru hori «kale erasoetan sartuta dagoen talde baten esku» geratu dala nabarmendu.

Basagoitik gogoratu arazo eban konpartsa horretako kide batzuk 1999 urteko Aste Nagusian ertzain bati eraso egitearren auzipetu zituela, eta «diruok nora joango ete diran» itaundu eban. PPko bozeroaleak esan eban «jaietako protagonismoa indarkeriaren inguruan dabilzen taldeen esku lagaten» dala eta «jaien ereduaren inguruan hausnarketa sakona» egin behar dala nabarmendu dabe PPkoek.